ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko abenduaren 20a, ostirala • 144 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Praktiketako funtzionarioak eta langile lan kontratudun finkoak izendatzea

2024ko abenduaren 12an onetsi eta Erriberabeitiko Udalaren ediktu taulan argitaratu dira egiturazko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko prozesuan praktiketako funtzionario eta langile lan kontratudun finko izateko izendapenak, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdiaren esparruan, jarraian zerrendatzen diren plazak betetzeko hautaketa prozesuak amaitu ondoren.

Hori guztia bat etorriz 2022ko abenduaren 12ko 142. zenbakiko ALHAOn argitaratu ziren aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrekin eta 2023ko apirilaren 19ko 93. zenbakiko BOEn argitaratu zen deialdiaren laburpen batekin.

Lanpostuak betetzeko deialdiko lehiaketa epaitu duen epaimahai kalifikatzaileak behin betiko sailkapenak proposatu ditu, eta izangaiek dokumentazioa aurkeztu dute.

Alkatearen hurrengo dekretuen arabera, praktiketako funtzionario eta langile lan kontratudun finko izendatu dira honako hauek, eta udal honen lanpostu hauetara atxiki dira:

PLAZA	TALDEA ETA AZPITALDEA	IZAERA JURIDIKOA	IZENDATUTAKO PERTSONA	NANA	IZENDAPEN DEKRETUA	PRAKTIKAK
Administrari laguntzailea	C2	Praktiketako funtzionarioa	María Belén Sierra Fernández	16*99*74*	549/2024	3 hilabete
Atezain zaindaria	E	Langile lan kontratudun finko	Iñigo Alonso Corres	3*65***3J	551/2024	3 hilabete

Lanpostuen atxikipena behin-behinekoa izango da praktikaldia amaitu arte. Taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien baliokideak diren ordainsariak jasotzea dagokio, ez bada Praktiketako Funtzionarioen Ordainsariak ezartzen dituen otsailaren 10eko 456/1986 Errege Dekretuan jasotako egoeretako bat gertatzen dela. Bat etorriz 16. oinarrian ezarritakoarekin, praktikaldia 3 hilabetekoa izango da C taldean, eta sei hilabetekoa A taldean.

Izendapen horiek dekretuan adierazitako egunetik aurrera izango dituzte administrazio ondorioak.

Praktikaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, karrerako funtzionario eta langile lan kontratudun finko izendatuko dira, eta izendapena ALHAOn eta legez ezarritako beste edozein tokitan argitaratuko da.

Funtzionario izendatutako izangaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita, legez ezarritako zin egitea edo hitzematea egiteko eta lanpostuaz jabetzeko.

Publizitate ondorioetarako, dekretuak osorik argitaratu dira Erriberabeitiko Udalaren ediktu taulan eta www.riberabaja.eus web orrian, eta interesdunei jakinarazi zaizkie.

Dekretu horien aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko da hilabeteko epean. Epe hori amaitu ondoren, administrazioarekiko auzi errekurtsoa baino ezingo da jarri, edota, hala badagokio, berrikusteko errekurtso berezia (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123., 124., 125. eta 126. artikuluak).

Ribabellosa, 2024ko abenduaren 12a

Alkatea
AMADO MARTÍNEZ DE ITURRATE CUARTANGO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.12.20 07:12:13 Z